



«Nire zilberrari
begira egote
horretatik alde
egin nahi nuen»

JUAN LUIS ZABALA
IDAZLEA

'Dimisioa' narrazio liburua argitaratu du idazle azkoitiarrak. Zientzia fisikoa jorratu du, hari komun bat duten hainbat ipuin osatuta: «Munduaren agintea ez dute gizakiek, konputagailuek baizik» // 6

Grebarako eskubiderik ez dutela salatu dute langile arrazializatuek

Azaroaren 30eko greba feminista orokorra dela eta, hainbat emakumek agerraldia egin dute Zumaian

• Salatu dute langile migratuek, arrazializatuek eta ijitoek ez dutela lanuztearekin bat egiterik // 4

**Hiru ikertzailek
beren lanak
aurkeztuko
dituzte Zientziaz
Blai ekitaldian**

Zarautzen zientzia eta dibulgazioa sustatzeko, jardunaldiak izango dira gaur Modelon. Herrien eta hirien erronkak izango dituzte hizpide // 3

**«Normaltasun
oso» ari dira
antolatzen
Azkoitiko San
Andres eguna**

Greba feminista deialdiarekin bat egiten du jaiegunak, baina festa egunean parte hartzen dutenen «gehiengoa» jaia ospatzearen alde dago // 7

Merkataritzaren
Astea
Azaroak
13 - 19

ETA OSTIRALEAN ... EGUN GOZOA
SORPRESATXO BAT DENDETAN
ETA ZOZKETA: 6 AFARI 2 LAGUNENTZAT ETA 6 TARTA

Euskadi, negozioa, bizi onak
ELKARTEA JAIALDIAZ GOBIERNO VASCO
MURKIL
Zarauzko
Dendarien elkarte
RURAL KUTXA
Beti hankatuta
ZARAUZ
TURISMOA

Telmo Lazkanoren hitzaldia, gaur Oxford aretoan

ZUMAIA // Maitane Ormazabalekin *Nerabeen garrasia* liburua argitaratu duen Telmo Lazkano zumaiaarrak hitzaldia emango du gaur, 18:00etan, Alondegiko Oxford aretoan. Zumaiaiko Herri Eskolako Telmo Deun guraso elkartek antolatuta du saioa, baina herritar guztiei zabalik dago. Datorren asteartean, hilaren 2lean, bigarren hitzaldia eman du Sagarbiden.

'Upon entry' filma, ostegunean zine forum saioan

ZUMAIA // Alejandro Rojasen eta Juan Sebastian Vasquezzen *Upon entry* filma emango du Ostarrrena zinema klubak ostegunean, zine forum saioan. Diego, Venezuelako hirigilea, eta Elena, Bartzelonako dantzaria, AEBetara joan dira, bisatu onetsiek, bizitza berri bati ekiteko. Saioa 19:00etan hasiko da, Aita Mari aretoan.

'Umore feminista zure kontsumorako' saioak, ostiralean

ZARAUTZ // Settem gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta, *Umore feminista zure kontsumorako* bakarrizketa sorta izango da ostiralean, Zarauzko Emakumeen Etxean, 19:00etan hasita. Belen Nevadok, Silvia Albertek eta Elsa Ruizek eskainiko dituzte saioak.

Iragarki laburrak

Lan eskaintza

Zarauz. Zarauzko Eroskiko kafetegian, pertsona bat behar da sukaldarako lanaldi erdian, astelehenetik larunbatera. Interesa duena bertatik pasa dadila.

Alokagai

Zarauz. San Pelaion, bi logelaren alokairua. Txokodun jardun pribatuarekin. Epe luzerako, konfiantzazko bi emakume pisukideren bila nabil. Animaliarik gabe. Bakoitzeko 525 euro hileroko, eta etxeko gastuak hiruror artean partekatzen. Ana: 667 33 87 27.



Lore eskaintza, Zarauzko Arrosategi parkean egindako ekitaldian. JUAN LUIS ROMATET

Indarkeriaren biktimak guztiak aitortu dituzte Oroimenaren Egunean

Zarautzen eta Azkoitian egin dituzte egun horrekin lotutako ekitaldiak • Hamasek hildako Ivan Illarramendi eta Lorena Garcovich aitortu dituzte bereziki Zarautzen

- JUAN LUIS ROMATET

Oroimenaren Nazioarteko Eguna izan zen larunbatean, azaroaren 11n. Egun horren harira, indarkeriaren eta terrorismoaren biktimak gogoratzeko ekitaldiak egin zituzten Zarautzen eta Azkoitian.

Bi izan dira Memoriaren Eguna dela-eta Zarautzen antolatutako ekitaldiak. Batetik, ostiral eguerdian, minutuko elkarretaratze isila egin zuen Zarauzko Udalak udaletxe parean, «biktima guztiak gogoan izateko». Al-

derdi guztietako ordezkariak parte hartu zuten isilunean. Igande eguerdian, bestetik, Arrosategi parkean izan zuten biktimak gogoratzeko ekitaldia.

Jesus Arana lehen alkateordeak eta Gloria Vazquez bigarren alkateordeak irakurritako oharrean adierazi zuten, «memoriak oinarritzko zutabea izan behar du indarkeriarik ezan». Indarkeriaren eta terrorismoaren biktimak guztiak gogoan izan zituzten. «Biktimak ezin ditugu ahaztu, ez ditugu ahaztu behar,

ez ditugu ahaztu nahi, memoria baita bermerik onena berriro ez gertatzeko. Biktimak dira indarkeriaren eta terrorismoaren min, sufrimendu eta bidegabekeria erradikalenaren ordezkari», azaldu zuten. Bereziki, Hamasen erasoaren ondorioz urriaren 7an hil zituzten Ivan Illarramendi eta Lorena Garcovich gogoratu zituzten.

Bost minutuko isilunea eta lore eskaintza ere egin zituzten. Ondoren, nahi zuten guztiek izan zuten Memoriaren Libu-

ruan beraien hausnarketak idazteko aukera.

Azkoitian, ostiralean

Bestalde, bost minutuko elkarretaratze isila egin zuen Azkoitiko Udalak ostiralean, «herriko biktima guztien memorian», Intsausti jauregiaren aurrean dagoen Oroimenean eskulturaren parean. Isilunea amaitu ostean, loreak utzi zituen Ana Azkoitia alkateak eskulturaren aurrean. Elkarretaratzean izan ziren udaleko alderdi guztietako ordezkariak.



Zarauzko Udaleko zinegotziak, ekitaldiko une batean. JUAN LUIS ROMATET



Udal ordezkariak, Azkoitiko ekitaldian. IRAIA OTEIZA

Herrien eta hirien erronkak ardatz, gaurko Zientziaz Blai ekitaldian

Modelon izango da, eta Zarauzko hiru ikertzaile gaztek beraien lanak aurkeztuko dituzte • Ula Iruretagoiena arkitekto eta hirigileak ere parte hartuko du saioan

-ARITZ MUTIOZABAL

ZarautzOn elkarteak antolatuta, Zarautzen Zientziaz Blai ekitaldia egingo dute bederatzigarrenez, herrian zientzia eta teknologia dibulgazioa sustatzeko eta, bide batez, herriko ikerlari gazteei hitza emateko. Aurtengo edizioak *Gure herrien eta hirien erronkak* leloa darama, eta hain justu ere gai hori izango dute aztergai; nolabait ere, ingurune osasungarriak, jasangarriak eta pertsonetako lagunkoia eraikitzeko. «Horretarako, beharrezkoa da zientzia ezberdinen elkarlana, guztien artean pertsonen eta komunitatearen zerbitzura egongo den habitat jasangarria-



Iazko Zientziaz Blai ekitaldia, Modelo aretoan. UTZITAKOA

go bat eraikitzen laguntzeko», nabarmendu dute ZarautzOn elkarteak kideek.

Egitasmoan Zarauzko hiru ikertzaile eta profesional gaztek parte hartuko dute: Miren Jua-

ristik, Harbil Arregik eta Iñigo Ocamicak. Eraikuntza jasangarriarekin, mugikortasun berdearekin eta biztanleentzako zentzuzko nahiz arimazko hiri diseinuarekin zerikusia duten

proiektuak aurkeztuko dituzte. Ekitaldia gaur arratsaldean izango da, 19:00etatik aurrera, Modelo aretoan.

Gonbidatua

Zientziaz Blai jardunaldiak, hiru ikerlari zarautzarrez gain, gonbidatu berezi bat ere izango du: Ula Iruretagoiena arkitektoa, hirigilea eta EHuko Arkitektura Eskolako irakaslea ariko da hizlari. Hain justu ere, berak itxiko du aurtengo ekitaldia. Iruretagoietak irakasle lana praktika profesionalarekin eta dibulgazioarekin uztartzen ditu, eta *Gara* egunkariko eta *Argia* aldizkariko ohiko kolaboratzailea da.



«Eraikinen energia eskaera murriztu daiteke Fatxada Opako Egokigarriekin»

Miren Juaristi
Arkitektoa

-A. MUTIOZABAL

Arkitektura ikasi zuen Miren Juaristik (Zarautz, 1992), eta doktorea da Arkitekturako Ingu-rumen eta Teknologia Diseinu-an. Gaur egun, energia aldetik eraginkorrak diren eraikinen teknologietan dago espezializatu-a, bereziki eraikinen fatxaden teknologietan. «Duela hiru urte, doktoretza amaitu nuenean, Italia- ra joan nitzan ikerketa zentro batean lan egitera (EURAC Research). Bertan, hainbat ikerketa proiektutan parte hartu dut. Horiei esker, fatxaden inguruan jarraitu dut lanean: alde batetik, doktoretzako ikerketa lerroarekin, eta bestetik, fatxada teknologia berriak sustatzu, horiek integratzen dituzten neutraltasun klimatikorako, ekonomia zirkularrerako eta industrializaziorako beharrezkoak diren osagaiak», azaldu du.

Zientziaz Blaiako hitzartzean kontzeptu teknologiko berri bat azalduko du: Fatxada Opako Egokigarriak. «Gaur egun, berokuntzarako eta hozteko erabiltzen dugun energia eskaria murrizteko, gure eraikinen termikoki isolatzen ari gara. Baina hori ez da beti estrategia onena energia eskaria murrizteko. Fatxada Opako Egokigarriak esker, bero trukea blokeatu edo ahalmen- deazakegu ingurumen baldintzen arabera, eraikinen energia eska- ra murriztu», esan du.

Era berean, doktoretza garaian heldutako ezagutzak azalduko ditu, baita nola ari den orain kontzeptu hori garatzen ere koordinatzen duen EIC Pathfinder proiektuaren bidez. «Jada ez da ikerketa pertsonal bat, diziplinarteko ikerketa baizik».



«Gure lan prozesuarekiko dugun jarrera kontatuko dut saioan»

Iñigo Ocamica
Arkitektoa

-A. MUTIOZABAL

Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan graduatutako arkitektoa da Iñigo Ocamica (Zarautz, 1992), eta Gradu Amaiera- ko Aparteko Saria eta Karrera Amaierako Kutxa Saria irabazi zituen. Masterreko azken lana Iñigo Tudancarekin batera garatu zuen, eta bien artean Ocamica Tudanca estudioa sortu zuten 2017an. Harrezkero, obra publiko-ko zein pribatuko proiektuak egin dituzte.

«Estudio gisa ez gaude arlo konkretu batean espezializatuak, mota ugariako proiektuak egiten ditugu (erreforma txikiak, eraikin berriak, espazio publikoak, lorategiak edo paisaiarekin erlazionatutako proiektuak...), eta aniztasun hori asko gustatzen zaigu, proiektu mota batek besteak ere 'elika' ditzakeelako», adierazi du Ocamicak.

Ibilbide luzea izan ez arren, haien laneak aitortza jaso dute hango eta hemengo jaialdietan. «Konpromisoa eta zorrotasunez» lan egiten dute, proiektu bakoitzak «erronka berri gisa» ulertuta. Gainera, «testuinguru-errespetutik» baloratzen dute.

Gaurko jardunaldian proiektu jakin bat izango du hizpide Ocamicak: «Zientziaz Blai ekitaldian, Mansilla Mayor herrian [Espainia] egin genuen plazari buruz hitz egingo dut. Proiektua azalduz, espazio publikoak diseinatze-ko momentuan gure lan prozesua eta hirigintzarekiko dugun jarrera eta printzipioak kontatzea izango da asmoa», zehaztu du arkitekto zarautzarrak. Mansilla Mayorreko proiektuak hainbat sari lortu ditu: AJAC 2020 ex-aequo saria Hirigintza eta Paisaia kategorian, FAD Hiri-ria eta Paisaia 2020 saria, eta BEAU XV Arkitektura eta Hiri- gintzako Espainiako Biurtekoan ere saritu dute.



«Ibilgailu elektriko- en kontsumoaren adibide batzuk erakutsiko ditut»

Harbil Arregi
Informatika
Ingeniaritzan doktorea

-A. MUTIOZABAL

Telekomunikazio Ingeniaritza ikasi zuen hasiera batean Harbil Arregik (Zarautz, 1986), eta Vi- comtech ikerketa zentroan hasi zen lanean, garraio sistema adi- mendunei lotutako sailean, hain zuzen ere. «Harrezkero, master eta doktoretza ikasketak ere egin ditut, informatika eta komputa- zio adimendunen arloan; batez ere, pertsonen eta ongaien ga- rraioari buruzko proiektuetan

egin izan dut lan Vicomtechen», gaineratu du Arregik. Informa- zio sistema geografikoak, ga- rraio sarearen adierazpide digi- talak eta, orokorrean, denbora eta espazioarekin lotutako da- tuen analisian eta esplotazioan espezializatuta dago. Gaur egun, Mugikortasuneko eta Logistika- ko Sistema Adimendunen saile- ko ikertzaile seniorra da.

Zientziaz Blai egitasmoaren bederatzigarren ekitaldian on- dorengo proiektua proposatuko du doktore zarautzarrak, Mode- lo aretoan: «Garraio sistema ja- sangarriago baterako bidean, hainbat aldageta bizi ditugu az- ken urteotan. Araudi eta mugi- kortasun plan ezberdinek, beste- ak beste, leku batetik bestera eguneroko eta noizbehinkako jardueretara desplazatzeko ibil- gailu pribatua gutxiagotan hau- ta dezagun bilatzen dute, baita erabiltzen diren ibilgailuen ku- tsaduraren eragina txikitzea ere, bidaia-rien garraioan zein mer- kantzien banaketan».

Arregiren esanetan, arlo ho- rretan «ikerketa lerro ugari eta oso desberdinak» dauden arren, berak «ibilgailu elektriko- en ba- teria kontsumoa estimatzeari lo- tutako adibide batzuk» erakutsi- ko ditu. Beraz, mugikortasun berdearen erronkari buruzko hainbat ikerketa adibide aurke- ztuko ditu ikerlariak.



Zumaian egin zuten agerraldia joan den larunbatean. Bertan azaldu zuten zergatik ez duten bat egingo greba feminista orokorrarekin. M. M. M.

Langile migratuak, arrazializatuak eta ijitoak, grebarako eskubiderik gabe

Azaroaren 30eko greba orokorra dela eta, langile arrazializatuak, migratuak eta ijitoak grebarako eskubiderik ez dutela salatu dute hainbat elkartek, tartean, Malen Etxeak.

– MARIA MAYA MANTEROLA

Euskal Herriko dozenaka elkar-tek –tartean, Malen Etxeak– agerraldia egin zuten joan den larunbatean Zumaiaiko Saregile plazan, azaroaren 30eko greba feminista dela eta. Azaldu zuten, zaintzarako eskubide kolektiboa-aren alde egon arren, grebarekin

bat ez egitea erabaki dutela, langile arrazializatuak, migratuak eta ijitoak grebarako eskubiderik ez dutelako.

Batetik, salatu zuten pertsona arrazializatuak, migratuak eta ijitoak aintzat hartzen ez dituen planteamendua dela grebarena. Izan ere, haien hitzetan, soldata-

peko feministek greba egingo dute, hein batean, «gainerako- en» eskubideak defendatzeko, greba egin ezin dutenen eskubi- deak, alegia.

«Bazterketa esanguratsua» da hori, haien ustez, zaintza lanak emakume migratuen gain erotzen direla kontuan izanda.

«Mugimendu feministak plante- amendu itxi batera gehitzera gonbidatu gaitu, baina beste urte batez, ez gaituzte entzun eta ez dituzte aintzat hartu espazio batzuetan izan ditugun eztabai- dak», gaineratu zuten.

Bestetik, nabarmendu zuten emakume ijitoak lan merkatutik

kanpo daudela, baita lan preka- rioenetatik ere. Era berean, za- lantzan jarri zuten haurren, adi- nekoen edota mendekotasun egoeran dauden pertsonen zain- tza kanpora ateratzea ere.

Zaintzarako eskubidearen alde egon arren, ez dute grebarik egingo

Estrategiak ikuspegi antiarrazistarekin berraztertze-ko eskatu zuten

Espainiako Parlamentuan 500.000 pertsonaren erregulari- zazioa eskatzeko sinadura bilke- ta ere aipatu zuten. Dena den, agerraldian bildutakoan ustez, Euskal Herriko alderdiek ez dute defendatu beren proposamena. Jarraian zerrendatu zituzten be- ren eskakizunak: erroldatzeko erraztasunak izatea, diru publi- koarekin langile migratuak es- plotatzeari uztea, etxeetako zaintzaren esparruan asteen 35 ordu lan egitea gehienez, baz- tertze egoerari aurre egiteko neu- rriak hartu eta doako hezkuntza publikoa eta kalitatezkoa jaso- tzeko eskubidea izatea eta etxe- bizitza eskubidea, besteak beste.

«Arrazakeriaren aurkako eta deskolonizazioaren aldeko fe- ministak» diren aldetik, beren kolektiboen aitortza galdegin zuten larunbateko agerraldian, amaitzeko. Haien ustez, ez da nahikoa egun bateko ekintza sinbolikoekin: agendak eta es- trategiak ikuspegi antiarrazista- rekin berrikusteko eskatu zuten, «arrazakeria kolonialaren aurka- ko erreparazio historikoan» au- rrera egiteko.

Basoko onddoak ezagutzeko irteera egingo du Geoparkeak

– JUAN LUIS ROMATEZ

Mikologian lehen urratsak ema- teko topaketa antolatu du Eus- kal Kostaldeko Geoparkeak hasi- berrientzat datorren igandera- ko, hilaren 19rako. Itziarren egingo dute Aranzadi zientzia el- kartearen laguntzarekin abian jarritako biodibertsitate topake- ta. Parte hartzaileak 10:00etan abiatuko dira Itziarko plazatik, eta hiru ordu iraungo du irtee- rak.

Jarduerak Euskal Kostaldeko Geoparkea osatzen duten he- rrien biodibertsitatea ezagutze- ra ematea dute xede, eta horretar- ako, Aranzadi zientzia elkarte- ko adituen laguntza izan ohi dute ekintzek urtero.

Igandeko saioa Itziarko Liza- rreta mendiaren bueltan egingo dute, eta inguruan aurki daitez- keen onddoak bertatik bertara ezagutzeko beta izango dute el- kartzen direnek.

Ekintza gaztelaniaz egingo dute, eta tokia mugatua izango da. Parte hartzeko, aurrez izena eman behar da labur.eus/onddo- ak2023 helbideko formularioa beteta. Jarduera irekia izango da, edonork parte hartzeko mo- dukoa.

Urtero inguruotako eremu bat bisitatu ohi dute irteeren bidez. Iaz, esaterako, Santiagoko dune- tako biodibertsitatea ezagutu zuten.

Fagollagako zentral hidroelektrikoa bisitatuko dute

– M. MAYA MANTEROLA

Piztu energia komunitatearen eskutik, Hernaniko (Gipuzkoa) Fagollagako zentral hidroelek- trikoa bisitatzeko irteera izango da azaroaren 25ean. Zumaia- tik 09:30ean irtengo dira autobu- sez, eta eguerdirako bueltan izango dira.

Instalazio hidroelektrikoa da Fagollagakoa, hainbat urte dara- matza funtzionatzen, eta berriki

Goienerrek hartu du bere gain, jabea erretiratu ondoren. Zen- trala bertara erraz iristeko mo- dukoa da, eta energia sortzeaz gain, beste zentraletara sartu eta ezagutza maila hobetzeko as- moz, ikasteko zentro gisa ere erabiltzen da.

Bisita kooperatibaren senti- bilizazioarako eta gaian sakontze- ko antolatu dute, eta doakoa bada ere, izena eman behar da.

Berritu egin dute indarkeria matxistaren biktimen arretarako protokoloa

Azpeitiko Udalak aho batez onartu du bigarren protokoloa
• Legediaren aldaketak kontuan hartuta berritu dute, eta beste udalerrietakoekin alderatuta, «bereizgarriak» ditu Azpeitikoak

-NEREA URANGA

Azpeitia
Joan den asteartean egindako azaroko udalbatzarrean, besteak beste, indarkeria matxistaren biktimen arretarako bigarren erakunde arteko protokoloa onartu zuten EH Bilduko eta EAJko udal ordezkariak, aho batez. Miren Arrieta Parekidetasun batzordeburuak azaldu zituen protokolo berriaren nondik norakoak. Hark udalbatzarrean adierazi zuenez, orain arte indarrean egon den protokoloa 2013. urtean onartu zuen Azpeitiko Udalak, eta ordutik legedian aldaketak ugariak izan direnez, «berritu beharra» ikusi zuen erakundeak.

Bi dokumentu biltzen ditu indarkeria matxistaren biktimen arretarako bigarren erakunde arteko protokoloak: alde batetik, indarkeria matxista kasuetan emakumeen arreta hobetzeko erakundeen arteko (Azpeitiko Udala, Osakidetza eta Ertzaintza) koordinazioa nola egin zehazten duen dokumentua dago, eta, bestetik, Azpeitiko Udalak indarkeria matxista kasuen au-

rrerian salaketa publikoa egiteko gauzatu beharreko jarduteko moduei buruzko dokumentua.

Arrietak azaldu zuen protokoloa «prozesu baten emaitza» izan dela. «Udalak aurreko protokoloa berritzea erabaki zuen, horretarako beharra zegoelako. Era berean, Udaltzaingoak indarkeria matxistaren arloan eskumen gehiago hartzeko bidea hasi zuen, eta arlo honetan lanerako prestutasun handia zuenez, prozesua abian jartzeko une ona zela ikusi zen». Protokoloa berritzeko prozesua «barne prestatuntzarako» ere erabili dutela adierazi zuen udalbatzarrean Arrietak.

Bereizgarriak

Azpeitiko protokoloak beste udalerrietakoekin alderatuta badu bereizgarri bat, Arrietak zehaztu zuenez: «Azpeitikoan Udaltzaingoak beste herrietan hartzen ez dituen ardurak hartzen ditu beregain indarkeria matxistaren biktima diren emakumei arreta emateko garaian. Adibidez, salaketa jartzeko au-

kera eskaintzen du, eta jarraipena ere Udaltzaingoak berak egiten du».

Onartu berri duten protokoloak berrikuntzarik ere badu; besteak beste, erakundeen arteko koordinazio mahaia sortu dute. Parekidetasun batzordeburuak azaldu zuenez, mahai hori azaroaren 27an bilduko da lehen aldiz. Bestalde, aurtun aurreneko aldiz, Azpeitiko hainbat udal zerbitzuren datuekin txosten bat osatuko dute, «koordinazioa hobetzeko eta indarkeria matxistari aurre egiteko politikak hobetzeko».

Udalaren erabaki eta jarduketara publikoak ere zehazten ditu onartu berri duten protokoloak. Parekidetasun batzordeburuak azaldu zuenez, salaketa publikoa udalak zein kasutan egin behar duen jasotzen du protokoloak, baita hori egiteko zer urrats egin behar dituen ere: «Nola kontrastatu informazioa, norekin koordinatu, nor hartu erabakiak eta zeren arabera egin edo ez egin salaketa publikoa jasota dago protokoloan».

Saiazen martxan da berriro protokoloaren talde eragilea

Saiaz mankomunitatearen –tartean, Errezil eta Beizama– indarkeria matxistaren kontrako protokoloaren jarraipenaz arduratzen da talde eragilea.

-MAILLO OIARZABAL

Saiaz gizarte zerbitzuatarako mankomunitatearen indarkeria matxistaren kontrako protokoloaren talde eragileak joan den astean egin zuen udal agintaldi berriko lehen bilera.

Duela urtebete plazaratu zuen protokolo hori Saiazek, Beizamako, Errezilgo, Bidania-Goiazko eta Albizturko udalei zerbitzua ematen dien mankomuni-

tateak. Agintaldi berriko lehen bilkuran, besteak beste protokoloaren jarraipenaz arduratzen den talde eragileak hiru gai nagusi izan zituen hizpide: indarkeria matxistari lotuta 2023ak aipatu lau udalerrietan utzitako datuak aztertu zituzten, azaroaren 25erako programa bateratua antolatzeaz hitz egin zuten, eta hilaren 30ean egingo den greba feministaz ere aritu ziren.



Saiazeko indarkeria matxistaren kontrako protokoloaren talde eragilea, agintaldiko lehen bileran. SAIAZ MANKOMUNITATEA



Miren Arrieta Parekidetasun batzordeburua protokoloa azaltzen, udalbatzarrean. NEREA URANGA

Zozketa

29 KIROLA

Gipuzkoa basket
Caceres Patrimonio de la Humanidad

[Zozketa zenbakia: 29] Partida eguna, ordua: azaroak 19 (17:00)
Sarrera bikoitz bat Lekua: Donostiako IIIunbe estadioan

Zozketan parte hartzeko deitu: **943-56 01 64** zenbakira edo **webguneko TXOKOA atalean izena eman**, gaurtik azarora 16ko eguerdiko 12:00ak baino lehen. Sari-dunen izenak ostiraletan argitaratuko ditugu.

HITZA *kide* **en**
TXOKOA

«Orain dela ia berrogei urte nuen kezka beretik abiatu dut liburua»

JUAN LUIS ZABALA IDAZLEA

‘Dimisioa’ liburua argitaratu berri du Juan Luis Zabala (Azkoitia, 1963) idazleak. «Egungo politiken biharko agertoki posibleak» irudikatuz, zientzia fikziora egin du salto idazleak.

-IRAIA OTEIZA


Dimisioa (Susa) narrazio liburuarekin zientzia fikzioan murgildu zara lehen aldiz. Zer irudikatu duzu bertan?

Hamabost ipuinez osatutako liburua da, eta denak kokatu ditut hemendik hamarkada batzuetarako munduan, 2050eko hamarkadatik aurrerako gizartearen. Ipuin bakoitza autonomoa da, pertsonaia ezberdinak ageri dira, eta egoerak ere aldatu egiten dira. Hori bai, guztiek dute zerbait komunean: munduaren agintea ez dutela gizakiek, konputagailuek baizik. Hortik abiatuta, elkarrekin konektatuta dauden bi gailu sortu ditut, bata Ilargian eta bestea Lurrean dagoena, eta konputagailu nagusi batera lotu ditut biak. Konputagailu horrek erabakitzen du nola antolatuta mundua, nola kontrolatu trafikoa, herrialde bakoitzaren zeregina... Azken batean, denen bizimodua kontrolpean dauka. Gizakiak dimititu egin duelako iritsi dira egoera horretara. Gizakia ez da ados jartzen gauza askotan, izan klima aldaketagatik zein gerrengatik, eta mundua pikutara zihoala ikusirik, dena konputagailuen esku uztea erabaki dute, egoera hobetu asmoz.

Mundu konputarizatuari gero eta gehiago hurbiltzen ari da gizartea. Hortik abiatuta sortu al duzu narrazioa?

Beti pentsatu izan dut momenturen batean trafikoa beste modu batera arautu beharra egongo dela, eta ezin izango dugula autoan nahi dugunean eta nahi bezala ibili. Horri tiraka sortu dut liburuko lehenengo ipuina, *N-634* izeneko, eta trafikoa-ren kontrola Agintaritzak Global Konputarizatuak (AGK) duela kontatu dut han. Kontu horrekin sortu zitzaizkidan lehenengo txispa, duela bost urte. Ordurako jada buruan neukan zientzia fikziozko liburu bat idatzi nahi nuela.

Beraz, zientzia fikziozko liburua izanagatik ere, badu mun-



UTZITAKOA

du errealeko etorkizun posiblearekin antzekotasunik.

Lehenengo ipuin hori egin eta handik urte batzuetara desakabritu nuen itzulpen automatikoa. Idazleaz gain itzultzailea ere banaizenez, harritura geratu nintzen itzulpenaren azkartasunarekin eta konputagailuek izan dezaketen ahalmenarekin. Egia da, euskararen kasuan, behintzat, oraindik ez duela lortu itzulpen oso ona egiterik, baina izugarria da egiten duena. Administrazioko testuetan, esaterako, harrigarria da itzultzaile automatikoak nola egin dezakeen segundo batean gizakiak denbora askoz gehiagoan nekez egiten duen lana.

Hortik abiatuta hasi nintzen pentsatzen, konputazioak itzultzaile baten lana hain ongi egiten badu, beste lanbide batzuetakoa ere ongi egiteko moduan izango dela; baita politikariena ere, askotan beraien arteko liskarretan galdu egiten direlako. Hori kontuan hartuta, eta makinaren ahalmena ikusita, agian gizakiaren irtenbidea konputazioak ekar dezakeela pentsatu

nuen. Horrek ez du esan nahi soluzioa hori dela pentsatzen dudaniak, baina fikziorako ideia oso ona iruditzen zitzaidan.

Covid 37 gaitz birikoa, IZE Ilargiko Zerbiztu Estazioa zein aipatu duzun AGK Agintaritzak Global Konputarizatuak bezalako terminoak asmatu dituzue narrazioarako. Mundu berri oso bat sortu duzu.

Etorkizunean sor litezkeen zerbiztu batzuk dira, azkenean, BKS Banakako Konexio Sistema,



«Ipuinetan kontatzen dudana gizartea ez da hain ezberdina gaurkoaren aldean»

adibidez, gero eta konektatuago, kontrolatuago eta monitorizatuago dagoen gizarte batean bizi garelako sortu dut. Halako gauzak imajinatu ditut. Hala ere, ipuinetan kontatzen dudana gizartea ez da hain ezberdina gaurkoaren aldean: izateko era oso antzekoa da, eta pertsonen

kezkak ez dira errealitate asko aldentzen. Errealitate teknologikoa aldatzen da, gizartearen antolaketa ere bai, baina ez pertsonen kezkak.

Zientzia fikziozko zure lehen liburua idatzi berri duzu, baina 2017an idatzi zenuen *Ospa* liburuak ere badu *Zientzia Fikzioa* izeneko atal bat.

Ospa liburuko atal horixe da, hain zuzen ere, zientzia fikzioan orain arte idatzia nuen gauza bakarra. *Dimisioa* lanarekin zientzia fikziora salto egitea erabaki nuen, neurri handi batean, nire betiko estilotik eta nire betiko idazkeratik ihes egiteko. Beti izan naiz nahiko idazle intimista, istorioko pertsonaien ktramilei asko begiratzen diena, nire egiazko kezkak pertsonaien bizidatzen dituenen, eta nire zibilborrari begira egote horretatik alde egin nahi nuen. Horregatik hasi nintzen zientzia fikzioa idatzten, askatasun gehiago ere ematen zidalako. Idatzi dudana ez da beharbada ohituta gauden zientzia fikzioa, ez dakit, ez da astronauta askorik agertzen, eta espazioa ere tamainan ageri da.

Pertsonaien kezkak ere ez dira oso ezberdinak mundu errealean ditugunekin alderatuta. Finean, beste era bateko zientzia fikziozko liburua idatzi dut; hala uste dut, behintzat.

Aipu berezi batekin hasi duzu *Dimisioa* liburuaren narrazioa.

1985ean idatzi nuen nire lehen-dabiziko liburua, *Zigarrokin ziztrin baten azken keak* izeneko. Lehen liburu hark eta orain argitaratu dudanak lotura bitxi bat dute. 1985ean Louis Aragon idazlearen aipu batekin hasi nuen narrazioa, eta, hain zuzen ere, aipu hori bera erabili dut liburu honen hasieran ere. «Mundua inork eusten ez dion bolante batek gidatzen du», dio aipu horrek. Aragon XX. mendeko idazle frantziarra zen, 1982an hil zena, eta aspalditik zuen mundua inork gidatzen edo inork gidatzen ote duen kezka. Nik ere ideia hori aspalditik izan dut buruan. Pentsa, orain dela ia berrogei urte nuen kezka beretik abiatu dut azken liburua ere.

Idatzen hasi zinenetik literaturarak aldatetarik izan dituela esango al zenuke?

Bai, asko aldatu da; euskal literatura bai, behintzat. Ni hasi nintzenean agiaz sentitzen nuen euskal literaturari ekarpen bat egiten ari nintzaioa. Artean idazle gutxi zeuden Euskal Herrian, eta gazteak ere gutxi ginen.

Ordutik, baina, euskal literaturak sekulako bidea egin du. Idazle asko daude, genero guztiak landu dira euskaraz, eta denetarako aukera dago. Bitxia bada ere, lehen baino lotsatuago sentitzen naiz orain liburu bat idatzen dudanean. Zalantza izaten dut benetan ekarpen bat egiten ari ote natzaion euskal literaturari. Brometan esan izan dut euskal literaturari eta euskal kulturari mesede handiagoa egiten diola euskaraz hitz egiten duen zerbiztari edo dendari batek, euskal idazle batek baino. Orain dela berrogei urte ez zen halakorik gertatzen, orduan bazegoelako euskal idazleen beharra, eta sentitzen zen premia hori. Gaur, hainbeste idazle da sortzaile dagoenez, agian arazoa ez da sortzaile falta, irakurle eta kultura kontsumitzen duten euskaldunen falta baizik. Eta horregatik diot gaur egun liburu bat argitaratuta euskarari egiten zaion mesede agian ez dela taberna batean zerbiztari euskalduna jarrita egiten denaren adinakoa. Karikatura edo broma moduan esaten dut, baina badu errealitate zertxobait.

Irudia Zestoa



Mendietan eolikoak jartzea errefusatu dute

Sañu Bizirik taldeak, Zestoaiko Gazte Asanbladak eta hango Agiro mendi klubak antolatuta, hainbat ekintza egin zituzten larunbatean Zestoa, Mendietan zentral eolikorik ez! lelo hartuta. Goizean, mendi irteera egin zuten Endoia edota Otzarreta zeharkatuz, eta eguerdian elkarretaratzea zein bazkaria izan zituzten. SAÑU BIZIRIK

Irudia Azpeitia



Ardoa eta txorizoa, Azpeitiko plaza girotzeko

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, XVI. Ardo Dastaketa Eguna ospatu zuten larunbatean Azpeitian, eta plaza elkartu zirenek hamalau upategitako ardoa dastatzeko aukera izan zuten. Euskal Herriko IX. Txorizo Egosi Lehiaketa ere egin zuten zapatuan, eta Zegamako (Gipuzkoa) Oiarbide harategia izan zen garaile. IRAIA OTEIZA

«Normaltasun osoz» doaz aurrera San Andres eguna antolatzeko lanak

Greba feminista orokorraren deialdiarekin bat egingo du aurten Azkoitiko jaieguna, baina azaroaren 30eko festa egunean parte hartzen dutenen «gehiengoa» jaiak ospatzearen alde agertu da.

—MAILLO OIARZABAL Azkoitia «Egitarauean ez da aldaketa nabarmenik izango, eta urteroko ekintzez gozatzeko aukera izango da» aurten ere San Andres egunez Azkoitian, Euskal Herriko Mugimendu Feministak egun bererako greba feminista orokorra deitu badu ere.

Ostegunean plazaratu zuen ohar baten bidez, San Andres eguna antolatzeko lanak «normaltasun osoz» aurrera doazela jakinarazi zuen Azkoitiko Udala, azaroko azken eguneko festa egunaren inguruan egon zitezkeen zalantzak argituz. «Euskal Herriko Mugimendu Feministak azaroaren 30erako greba feminista orokorra deituta badu ere, udalak San Andres eguneko antolaketa lanekin jarraitzen du. Udala bera eta San Andres egunean parte hartu ohi duten ikastetxe, eragile, elkarte edota gizabanakoen gehiengoa festa eguna mantentzearen alde agertu da, eta beraz, antolaketa lanak normaltasun osoz doaz aurrera», zehaztu zuen erakundeak.

Hala ere, aurten txorizoa, taloak eta bestelakoak saltzen dituzten txosna gutxiago jarriko dituzte plazan, udalak jakinarazi duenez: hain zuzen, Azpeitiko Ikastola Ikasberriko eta Presoen



Azkoitiko plaza, iazko San Andres eguneko eguerdi partean. A.I.

Lagunak taldeak ez dute txosnarik jarriko, greba deialdia dela eta; horrela, Azkoitia BHIkoen bi postuak —DBHkoa eta Batxilergokoa— eta Floreaga ikastetxearena izango dituzte aukeran festara batzen direnek.

Egitarauea, etxeetan

Azkoitiko Udalak egunotan banatu du sanandresetako egita-

raua etxetxe etxe, eta hari erreparatuta, ohiko ekintzek osatuko dute San Andres eguna. Hain zuzen ere, Txuri Urdin elkarteak antolatutako marrazki lehiaketa, trikitilarien zein txistularien kalejirak, herri kirol jaialdia, Kontzejupe pilota txapelketaren finalak, musika saioak zein suzko zezena izango dituzte goizetik gauera bitartean.

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZA jarrita,
Goleriko Hitza eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu
urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain
merkeago

TXIKIA (82mm x 64mm): 104 € / *Harpidedunentzat: 52 €
HANDIA (124mm x 64mm): 156 € / *Harpidedunentzat: 78 €
ESKERTZA (38mm x 64mm): 52 € / *Harpidedunentzat: 27 €

*Harpidedunak HITZAko baliabideak puztu behar dituzte.



Andoni Garaizar Olaizola

Azaroaren 12an hil zen.

Plazer bat izan duk bidea hirekin egitea.
Askotak matte haugu.

Azpeitiko Ikastola Ikasberriko Artezkaritza Kontseilua

ikastola

AZPEITIAN, 2023ko azaroaren 14an



Andoni Garaizar Olaizola

Azaroaren 12an hil zen.

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
badakidalako irauten duela
orainak ere geroan

Azpeitiko Ikastola Ikasberriko guraso, langile eta ikasleek
familiarri elkartasuna adierazi nahi die eta zail honetan

ikastola

AZPEITIAN, 2023ko azaroaren 14an

UROLA KOSTAKO HITZA GUKA

Asteartea, 2023ko azaroaren 14a

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN. 1697-8587
Zuzendaria: Iñintza Elustondo.
Helbidea: Azpeitia, Soreasu 1, 20730. 943-81 38 41.
Zarautz. Araba kalea 27, 20800. 943-89 00 17.
Posta elektronikoa: urolakosta@ukit.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus
Zuzendariordea: Aritz Mutiozabal.
Publizitatea: Urola Kosta: 673 69 90 95.
Zarautz: 607 61 52 39. zarautz@ukit.eus.
Orio-Aia: 607 49 87 23. orio@ukit.eus.
Zumaia: 685 71 20 90. zumaia@ukit.eus.
Getaria: 607 49 87 23. getaria@ukit.eus.
Azpeitia: 607 49 87 23. azpeitia@ukit.eus.
Azkoitia: 607 49 87 27. azkoitia@ukit.eus.
Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama: 607 49 87 27.
zestoa@ukit.eus.



Gipuzkoako
Foru Aldundia



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Hitza-ko bezeroen
arreta zerbitzua
(zalantzak
argitzeko,
harpidedun
egiteko):
943-30 30 35

Goiza



Arratsaldea



Temperatura

21°
15°

Mareak

Itsasgora	04:43-17:00
Metroak	4:41-4:33
Itsasbehera	10:48-23:06
Metroak	0:99-1:04

zarauxkohitza.eus / urolakosta.hitza.eus

Agenda

Gaur, asteartea

Hitzaldia

Azkoitia. Bizitza bete hitzaldia eskainiko du Elisabete Arrieta Helduak Adil taldeko kideak. 18:00etan, Elkargunean.
Zarautz. Zarautzen Zientziak Blai egitasmoaren barruan, Gure hirien eta herrien erronkak hitzaldia izango da. 17:00etan, Modelo aretoan.
Zumaia. Mugikorren auziaren inguruko hitzaldia emango du Telmo Lazkanok. 18:00etan, Alondégiko Oxford aretoan.

Bihar, asteazkena

Emanaldia

Zestoa. Liam Zunzunegik Toubkalera igoera eta Erg Cherbibi basamortuan trekkinga bideoa eskainiko du, eta segidan, Maddi eta Juankar Alberdi aita-alabek Manasluko gailurrera egindako trekkingaren bideoa emango dute. 19:15ean, Alonderon.

Hitzaldia

Azkoitia. Urola Bizirik taldeak Ingurumen Jardunaldien barnean antolatutako *Landare exotiko inbaditzaileak* hitzaldia eskainiko du Aitziber Sarobek. 17:00etan, Elkargunean.
Azpeitia. Urolakoen Nafar Zuzterakek antolatuta, Akitania-Baskonia eta Franko Karolingioen Erresuma saioa, Iñaki Lopez de Luzuriagaren eskutik. Azoka Plazako aretoan, 19:00etan.

Tailerra

Azkoitia. Umeei zuzendutako zientzia tailerra izango da, klima aldaketari buruzkoa. 17:30ean, Aizkibel liburutegian.

Etzi, osteguna

Ipuin kontaketa

Orio. Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa izango da 5 eta 8 urte arteko haurrentzat. 18:00etan, Kultur Etxean.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Asteburuko samartinetako irudiak: Errezilgo giza probaren eta Askizuko, Lasako eta Azkoitiko San Martingo festen irudi bana. HITZA



Adin eta gustu guztietako herritarrentzako festetako egitaraua izan dute Errezilen asteburuan; jolasak, herri afaria, giza proba... Halaber, eskualdeko beste hainbat tokitan ere ospatu dituzte San Martin jaiak.

Jaietan murgilduta igaro dute asteburua Errezilen

-IHINTZA ELUSTONDO -INTZA TRULA

Ez dute atseden hartzeko astirik izan asteburuan Errezilen; samartinen aitzakian, haurrentzako jolasak, musika, herri afaria, umeentzako krosa, giza proba eta beste makina bat jardueraz gozatzeko beta izan baitute ostiralek igandera bitartean.

Ostiralean, haurrentzako jolasak, txokolate beroa, play back emanaldia, herri afaria eta erromeria izan zituzten.

Larunbatean, San Martin egunean, mezaz, hamaiketakoaz eta

bertaino bazkariak gozatu zuten, baita sagardo eta pintxo dastaketaz ere. Halere, iluntzerako gordetuzten gehienek indarrak, hainbeste itxarondako hitzordurako: Errezilen eta Bidaniaren arteko giza proba desfiorako, hain justu

23:00etan jokatu zuten herri kirol proba, eta Beheko Plaza leporaino bete zuten erakustaldia bertatik bertara jarraitu nahi izan zuten hainbat eta hainbat zalek. Herri bakoitzetik sei mutil gazte aritu ziren nor baino nor, 600 kiloko harriarekin hogeimituan zeinek plaza gehiago egingo. Errezilgo taldea Iker Zin-

kunegik, Unax Aizpuru *Antze-laik*, Haritz Goenaga *Imuntsok*, Julen Rueda *Erkizik*, Eritz Rodriguezek eta Oier Irulegi *Abitak* osatu zuten, eta haien entrenatzaile Gari Etxeberria aritu zen. Azkenean, ederki sufrututa, baina Errezilgo taldea izan zen nagusi. Hain zuzen ere, 60 plaza, zinta bat, hiru metro eta 76 zentimetro osatu zituen hogeimituan Bidaniako taldeak, eta Errezilgo mutilek, berriz, 64 plaza, hiru zinta, lau metro eta 40 zentimetro. Nahi zuten helburua lortuta, beraz, festa giro ederra sortu zen Errezilgo herrian.

Igandean, aldiz, Umeen Egu-

na ospatu zuten herriko jaiak egurra emateko.

Samartinak eskualdean

Errezilen ez ezik, eskualdeko beste hainbat tokitan ere, samartinak ospatu dituzte asteburuan: Askizun (Getaria), Buztintzuriko Errebalean (Azpeitia), Lasaoan (Azpeitia-Zestoa), Ortzaikan (Orio), San Martin auzoan (Azkoitia) eta Urdanetan (Aia), hain zuzen ere. Guztietan izan da dantzarako eta jan-edanerako tartea.

Besteak beste, San Martin mendi lasterketa jokatu zuten larunbatean Azkoitiko izen bereko auzoan. Mikologi elkarteak antolatuta, zortzigarren aldiz egin zuten ekintza, eta umeen zein helduen probak izan ziren. Eguerdia makurra eginagatik, jendetza bertaratu zen San Martin auzora, eta giro ederra sortu zen.

Gizonetan, Oier Olorza izan zen azkarrena; emakumeetan, berriz, Alaitz Oruesagasti. Gizonetan, bigarrena Josu Imaz izan zen, eta Borja Zubizarreta hirugarrena. Emakumeetan, Naia Aleson izan zen bigarrena, eta Ainhoa Larrañaga hirugarrena.